

ALTZA! PORRU



Euskal Herriko
Trikitixa Elkarte
L.G.: 55-418/01

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

2004ko abendua / 15. zenbakia

TRIKITIXAREN FESTA

NAZIOARTEKO TRIKITIXA JAIALDIA BILBON



Arrakastatsua izan zen benetan Bilboko emanaldia. Nazioarteko musikariez gain Xabi Aburruzaga, eta Roberto Etxebarria eta Kepa Arrizabalaga entzuteko aukera izan zen Bilboko Kafe Antzokian. Xabi Aburruzagak berak konposatutako abesti bat Carlo Rizzo pandero-jotzaile italiarra lagun zuela jo zuen. Bestalde, Roberto Etxebarria eta Kepa Arrizabalagak tradizioari egin zioten leku.

Quebec, Kantabria eta Italiatik etorritako musikariek ere ez zuten beren abildadeak erakusteko aukera alferrik galdu, eta saio politak eskaini zituzten. Gainera, hainbat azalpen eta argibide ere eman zituzten kantatik kantara, eta honek emanaldia asko aberastu zuen. Jaialdiari behar bezalako bukaera emateko, bertan parte hartu zuten musikari guztiak bildu, eta kantu bat jo zuten denek batera.

NAZIOARTEKO TRIKITIXA JAIALDIA DONOSTIAN

Donostiako Kursaalgo Ganbera Aretoa ere erabat bete zen, trikitixa entzuteko aitzakian; hainbat lagun kanpoan geratzeraino. Giro polita sortu zen gazte eta heldu bildu ziren emanaldian bertan, eta are eta beroagoa afariaren ondorenean.

Aurtengoa Trikitixa Jaialdia antolatzen den hirugarren aldia izan da. Lehenengo urtean soinu handiari egin zitzaion lekua, eta bigarrenean, berriz, dultzainak hartu zuen lekukoa. Aurten perkusioari eman nahi izan zaio lehentasuna, eta hori dela bide, etxeko eta kanpoko perkusio-jotzaileak bildu ditu Nazioarteko Trikitixa Jaialdiak. Pandero-jotzaileak, botila-jotzaileak, eta jazpana jotzeko abildade izugarria duten musikari hauek berehala girotu zuten Kursaalgo Ganbera Aretoa. Azken finean, trikitixaren festa polita suertatu zen. Jaialdiaren bukaeran, gainera, aurreko ekitaldietan bezalaxe, Joxe Lasa Axeigorri (Oiartzun), Joxe Mari Soraluze Epelde (Azkoitia), Bittor Gurrutxaga Otola (Azpeitia), Bitoriano Loiola Ospas (Mendaro) eta Mario Serranori (Arroa) egin zieten omenaldia, eta momentu hunkigarria bizi izan zen. Lagun hauek guztiak Gelatxoren garaiko jotzaileak dira, gerraosteko trikitiaren lekuko, eta hainbat txapelketa eta erromeriatan parte hartu dute.

Trikitixa areto itxitik atera eta afari ondorengo festa girorako baliatzeko asmoz, afaria zegoen antolatuta. Kasu honetan 169 lagun bildu ziren, eta giro ederra sortu zen bertan ere. Goseari eta egarriari aurre egin ondoren, hankak arin-arin mugitzeko aukera nahikoa izan zen, soinurik ez baitzen falta izan. Nola ez, trikitixa eta dantza primeran uztartu ziren, Trikitixa Jaialdiaren ondorengo festa handian.



Donostiako Nazioarteko Trikitixa Jaialdian parte hartu zuenak, oholtza gainean.

DURANGOKO AZOKA

Aurten ere **abenduaren 4tik 8ra** bitarte Durangoko Azokan izan da Euskal Herriko Trikitixa Elkarte, Bizkaiko Trikitixa Elkartearekin batera. Aurten ere izan da produktu berririk salgai, Bizkaiko Trikitixa Elkartearen eskutik argia ikusi duen *Bizkaiko Trikitixa* liburua eta Xabier Gantzarainek Epelderi buruz idatzitako lana. Urtero legez, egutegia ere jarri da salgai, urte berriari etorrera garaiz eginez.

Durangoko Azoka euskal ekoizpenaren habi den heinean, Trikitixa Elkartearen presentzia ezinbestekoa da, nahiz eta aurten salmenta-kopurua pixka bat apalxeagoa izan. Gainera, bazkide berriak erakartzeko ere balio izaten du, Nazioarteko Jaialdiak bezalaxe, eta ekitaldi hauetan bertan edo ekimen hauen ondotik, bazkide berriak hurbiltzen dira Elkartera.

Bestalde, Durangoko Azokak irauten duen bitartean lana gogor egin behar dela jakina da, baina stand-ean lan egiteko laguntzailerik ez da falta izan, eta benetan eskertzekoa da lagun hauek azaldu duten prestutasuna eta laguntza, besteak beste.



EPELDE, MENDE BATEN SOINUA



Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak Joxe Mari Soraluze *Epelde* azkoitiarrari eskaini dio Soinuaren Liburutegia saileko bosgarren alea, ***Epelde, mende baten soinua*** izenekoa. Trikitilariaren herrikide den **Xabier Gantzarain** gazteak idatzi du liburua, eta berak aitortua da inoiz ez dela trikitizalea izan, baina liburua idaztearekin batera musika-mota alde batera utzi eta taldearen kalitateari gehiago erreparatu behar zaiola ikasi duela.

Epelde trikitilariaren biografia eta mende hasierako Azkoitiaren erretratua egin du Xabier Gantzarain azkoitiarrak, gehienez kronologiari jarraiki. 1914an jaioa da Epelde, Azkoitiko Munio Baserrian, eta Epelde goitizena, berriz, gero Epelde Goikora ezkondu zelako jarri zitzaion.

Liburua egiteko, Epelde berarekin bildu da egilea, eta hark esandakoak ahalik eta ongien biltzen saiatu da. Egilearen

ustez, Epelderen bizitzak Azkoitiak mende honetan bizi izan duen bilakaera islatzen du, eta ildo honetan, egileari berari garai hartako gizartea nolakoa zen ezagutzeko balio izan dio. Elizaren errepresio gogorra islatzen da pasadizo askotan, garaiko giroaren isla. Hain zuzen ere, Epelde eta orduko trikitilariaren ausardiak eta jarrerak harritu du gehien egilea bera. Gerrako kontuei ere atal oso bat eskaini die Gantzarainek, Epelderen bizitzan leku handi samarra betetzen baitute gerra garaiko pasarteek.

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak 2001ean ekin zion **Soinuaren Liburutegia** izeneko proiektuari, eta dagoeneko bost ale argitaratu dira. Aurretik, Elgeta, Gelatxo, Arrola eta Sakabi izan dira sail honetako protagonistak. Beste aleetan bezalaxe, liburuarekin batera **CD** bat eskaintzen da. Epeldek berak ez zuen sekula diskorik grabatu, baina Joxe Mari Iriondok pieza batzuk grabatu zizkion, eta hain zuzen ere material horixe da orain Trikitixa Elkarteak baliatu duena. Honez gain, Antonio Sudupe Egurrola panderoan lagun zuela 1979ko Txapelketan eskainitako pieza biziak ere entzun daitezke diskoan.

EPELDERI OMENALDIA AZKOITIAN

Azkoitiko udaletxean, **azaroaren 30ean**, San Andres egunean hain juxtu, egun berezia izan zen. Epelderi buruzko liburuaren aurkezpena egin zen bertan. Goizeko hamaika eta erdietan ekin zitzaion Epelderi egin beharreko omenaldiari, eta liburuaren aurkezpenaren ondotik, Azkoitian barna ibili ziren trikitilariak kalejiran.

Ordura arteko neketik indarberritzeko, **Laja Jatetxean** elkartu ziren guztiak, bazkaritarako aitzakian. Bazkalondoan ere izan zuen segidarik trikitixak, Laja eta Landakanda, Zendoia eta Izer, Epelarre eta Etxeberritxo, eta Izer eta Lutxurdiok gogotik astindu baitzuten soinua. Epeldetarrek musikaren harian dantza latz egin zuten arratsalde osoan, nekatzeko betarik hartu gabe. Dudarik gabe, giro ezin hobean ibili ziren guztiak ere Epelderi eskainitako merezitako omenaldian.



Epelde gurasoak eta haren ia seme-alaba guztiak panderoa jotzen jarri zireneko une gogoangarria.

BIZKAIKO TRIKITIXA LIBURUA

ZERAIN DANTZA ZAIN, AZKEN ERROMERIA



Bizkaiko trikitixaren **partitura bilduma** bat argitaratu du Bizkaiko Trikitixa Elkarteak. Bertan Rufino Arrola, Kepa Arri-zabalaga, Luis Bilbao eta beste hainbat trikitilari bizkaitarren errepertorioa eta jotzeko era jaso nahi izan da.

Lan honen ardura **Xabi Aburruzaga** trikitilari bizkaitarrak hartu du. Maiatzaren 30ean Leioan

ospatutako **Ibilaldirako** kantu ofiziala egitearen ardura ere berea izan zen. "Alkarregaz heldu" abestian hainbat estilo uztartu zituen, baina bere musikan oinarri den folka nabarmentzen da abesti horretan ere.

Bizkaiko trikitixaren zoko-moko oro ezagutzeko aukera polita eskaintzen du argitaratu berri den liburu honek. Liburu hau ez da izango Xabi Aburruzagaren eskutik ikusiko dugun azken lana, lehen diskoa prestatzen ari baita.



Urtebeteko proiektu honi bukaera emanaz, **abenduaren 19an** erromeria izan zen Zerainen. Zeraingo eliz atarian **Koldo eta Arantxa Iparragirre** beasaindarrak eta **Patxi Perez** dantza-animatzailea izan ziren erromeriaren gidari, eta hauen musikaren esanetara, bertara hurbildutako jendea.

ZUMARRAGAKO TRIKITIXARI OMENALDIA

Zumarragako trikitixari omenaldia egin nahian, liburu argitaratu du bertako Udalak. **Zumarragako Trikitixa** 1920an jaio zen, Urteagatarren osaba zen Joxe Oriaren eskutik. Herri handietako kaleetan eta tabernetan jotzeari eta euren izaerari esker, Zumarragako Trikitixak sekulako ospea lortu zuen. Orain arte ez dute familiako tradizioari eusteko arazorik izan eta ez dirudi aurrerantzean ere arazorik izango dutenik.

Hori dela eta, Zumarragako Udalak eta herriko trikitizaleek egitarau bikaina antolatu zuten abenduaren 12rako, Santa Lutzi bezperarako. Goizean herriko trikitilariak herriko kaleak alaitu zituzten, eta eguerdian **Zumarragako trikitixa eta bere ingurua (1920-2004) liburu**a aurkeztu zen udaletxean. Ondoren, Antonio Oteizaren **Zumarragako trikitixaren omenaldia eskultura** inauguratu zen, eta bazkariaren ondotik ere jarraitu zuten trikitiaren inguruan dantzan.

Javier Ramos izan da Zumarragako Trikitixaren historiari buruzko liburu idatzi duena. Urretxuar hau akordeoilari, irakasle eta kazetaria da, eta liburuan Zumarragako Trikitixaren historia eta eskusoinua penintsulan nola sartu zen azaldu du. Ikertzaile honen hitzetan, italiarrak etorri baino 20 urte lehenago ezaguna zen akordeoia jada. Akordeoia 1829an asmatu zen eta 1930erako erruz fabrikatzen zen. Dirudienez, akordeoia Paristik heldu zen Madrilan, eta ikusmin handia sortu zuen. Egia da, hala ere, trenbidea egitera etorri ziren italiarrek akordeoiarekiko zaletasuna areagotu egin zutela.

Zumarragako Trikitixari buruzko liburu honez gain, Javier Ramos urretxuarrak badu beste proiekturik ere esku artean. Izan ere, dagoeneko bigarren liburu idazten ari da, Enrike Zelaiari buruz. Makina bat elkarrizketa egin dizkio dagoeneko soinu-jotzaileari, eta Euskal Herriko musikaren hedatzaile garrantzitsua izan denaren dudarik ez du Ramosek.



HAUSPO ZAHARRAK



Azaroaren 27an, Kursaalgo Ganbera Aretoan ospatutako Nazioarteko Trikitixa Jaialdian omendutako lagunak, hurrenez hurren: Epelde, Otolá, Mario Serrano, Ospas eta Joxe Lasa.

KALEJIRAN

TRIKITIXA ENTZUN

Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen webgunean (trikitixa.net) 1980-90. hamarkadako hainbat trikiti-saio dituzue entzугai. Batetik, Maltzetaren trikitixa eskolakoak entzun ditzakezue. 1990ean Oiartzungo soinu-jotzaileei egindako omenaldiaren berri izango duzue hartara. Bestetik, lurretan 1995ean trikitilari nagusiei egindako omenaldia entzuteko aukera ere badago, eta azkenik, 1988ko Lizartzako irrintzi txapelketa ere interesgarria izan daiteke.

ALAITZ ETA MAIDERREN AGURRA

Alaitz eta Maider oiartzuarrek agurraren arrastoa jarri gintuzten duela hiru bat hilabete, eta urtearen bukaeran iritsi dira beren ibilbidearen **azken portura**. Agurtzeko antolatutako saioetako bat jaioterrian bertan eman dute, abenduaren 18an, beren lagunez inguratuta. Mikel Markez, Maialen Lujanbio, Joseba Tapia eta Mikel Errazkinez gain, Imanol Urkizu, Gotzon Sanchez, Ana Tolosa, eta Marijo eta Mirari Telletxeak ere parte hartu zuten.

GALBAHEA

Xabier Aburruzaga
(Bizkaie!, 2004-11-22)

“Orain urte batzuk baino eskola gehiago emoten doguz orain eta afizinoak be gora egin dauala esango neuke; hori bai, faltan botaten ditut sasoi bateko txapelketak, guretzako erreferente ederra ziran, ze kontuan eduki kompetenziari edo lehiari esker kalidadeak be gora egiten dauala”.

Kepa Junkera
(Otamotz, 2004-azaroa)

“Rufino, Sakabi, Laja, Auntxa, Zumarragako Trikitixa... Haiek zuten pasioa ez dut ondorengo belaunaldietako trikitilarietan sumatu. Berei esker jotzen dugu trikitixa gazteago garenok. Beraien soinuak bultzatu gintuen jotzera, sentipen eta sentsazio transmisio handia egin zuten”.

Alaitz Telletxea
(Berria, 2004-11-04)

“Orain dela 14 urte musika euskaldun gehiago entzuten zen; orain aukera handiagoa daukagu, eta kanpoko musika asko sartzen da. Ez dakit komeni den edo ez, baina Euskadi Gazteak ere ez du hemengo musika jartzen ia...”